

Hitz hilik

A

bagune: Luzaro itxaro beharreko une egokia; hortik heldu da antzinakoek burusoil irudikatzeo ohitura.

Abantaila: Besteek eramaten diguten alde, oro har, eraman ezina.

Adierazpen askatasun: Komeni dena, nahi bezain ozenki, esateko eskubidea.

Apalategi: Libururen bat plazaratu duten idazle harro askoren otzan-tokia.

Argazki (makina): Uneen betikotzailea, bizipenen geroragailua. Ikusi ezin izan dituzun tokietan egon zarela lagun eta senitartekoei erakuste soilaz darabilen tortura-tresna.

Baina: Lokailurik gazi-gozena.

Bekaizti: Irizpide onaz zure nagusitasuna ezagutzen duen laguna, eta hori ordain zintzo bakarrarekin erakusten dizuna, gehienbat aitortu gabe.

Bidaiatu: Bertan egon nahi ez duzula oraindik ez dakizun toki batera (komunzki, nekatuta) iritsi.

Buruko min: Herentziatzko eritasuna, hala gurasoengandik nola seme-alabengandik kutsatua.

Demagogo: Zure argudioak modu argi goan adierazten dituen izaki ahoduna.

Depresio: Tristura prebentiboa, bizitzak ezinbestean ekarriko dituen atsekabeen aurrean.

Dohainik: Oraindik ezagutu gabeko prezio altu batean.

Dokumental: Helduentzako alegia animaliaduna, zeinaren bitartez ikas baitezakegu nola harraipatzen duen zizarea apoak, apoa sugeak, sugea tigreak, tigrea gizakiak eta gizakia loak.

Doministiku: Birus eta bakterioen bizitza soziala.

Ezkontza: Dibortzioen kausa nagusia.

Gu: Pluraleko lehen pertsona gramatikala. Bi adiera onar ditzake, inklusiboa eta esklusiboa, entzulea bere baitan hartzen duen ala ez; nola erabiltzen ari den zehazteko, entzuleak erabaki behar du bietako zein den onuragarriena (singularreko lehen pertsonarentzat).

Hitzaurre: "Testu batean, ondoren idatzi,



JOSU SANTESTEBAN



irudia:
Antton Olariaga

lehenago paratu, eta ez lehenago ez ondoren irakurtzen ez den zatia". (D. Segre).

Homofobo: Adiskide homosexual ugari dituen pertsona, haien kontra esan beharrekoa eztitzearen (ala frogatzearen) ezer baino lehen beti gogoratu ohi duen modura.

Igogailu: Kasurik hoberenean jaisteko ere balio duen meteorologia-estazio ibiltaria.

Internet: Eternitatearen azken interfazea; munduan den orok ezin du saihestu *sub specie internetatis* jardutea.

Izenburu: Obra bati ematen zaion izena; hizki handiangoetan idatzita egoten dena. Gaur egun izen sintagma batek osatuta dago gehienetan, aditz bat onar badezakeen arren; edonola, labur eta argia izatea lehenesten da, liburu dendaririk ezjakinenak ere gogoratzeko modukoa.

Kutxazain automatiko: Kapitalismoaren konfesatokia.

Maitasun: Gaizkiulertu (gehienbat izaera literariokoak) askoren metaketa. Delako egoera, elkarrenganakoan eta bi pertsonen artean, ematen denean, harreman bat ezarritako konpondu ohi da modu behin-behinekoan.

Olatu (segida): Itsasozko paisaietan, zeruertzaren mugagabetasun besarkatu ezina termino gizatiarragoetara itzultzen eta ulertarazten duten azpituduluak (behin eta berriz hasiak).

Parentesi: Erudizioaren aharrausia.

Plagio: Antzinako Erroman, esklabo baten lapurreta; gaurkoan, lapurreta baten esklabotza.

Sekretu: Bularrean sentitzen den zama pisutsua, konfiantzazko adiskide batengan deskargatu ohi duguna, gu baino indartsuagoa izan eta kontsolamendu berdina inor gehiagorengan bilatuko ez dezala alferrik itxaro izanik.

Txaloak: Baliabidea, zeinaren bitartez publikoak bere burua ezagutzen duen hautu, gustu oneko eta esna.

Zoriontasun: Norberaren hurbil baina beti gelditu gabe pasatzen den sentimendua.

Zuhaitz: Naturan lausoki inspiratutako hiri-hornigarria. ■